

GASTEIZKO MENDIAK

Betoñu haitzeko basabidea



11



Harbide zahar honetatik iristen ziren mandazainak Gasteizera, Errioxatik zekartzaten produktuak saltzera. Artzain bide ere bazen. Txundituta utziko zaitu, ezin hobeto artatzen baitu bere ondare naturala. Arabaren ekialdea eta mendebaldea lotzen dituen korridore honen erakusgarri nagusia pagadiak dira, bertan Europar Batasunaren intereseko hamabost habitat bizi baitira elkarrekin. Gasteizko Mendietako baso hostotsuetan animalia espezie ugari daude eta, mendebaldeko parajeetan, harraparien aberastasuna izugarria da.

20 kilometro inguru dituen ibilbide honen bitartez Gasteizko eraztun berdearen zati bat eta nekazaritza gunearen aberastasun naturala ezagutu ahalko dituzu, ibilaldi osoan zehar gurutzatzen diren bidezidorrek erakusten duten bezala. Bitxiena: bide horretatik ekarri ziren Axartetik, gurdiz, Gasteizko Andra Mariaren katedraleko harriak.



Ibilbide honen abialekua Olarizuko parkean dago, Olarizuko etxaldean. Hiriko bidegorrien saretik bertaratu zaitezke, eraztun berdearen itzuliarekin lotuz, edo bestela, autoz. Ibilbide hau egiteko teknikoki trebatuta egon beharra dago, azken zatietan batez ere. Neurtu ondo zure indarra!

IBILBIDEA

0 km

Olarizuko etxaldea. Aparkalekutik hegoalderantz irten-go gara, Olarizuko gurutzea parean dugula. Laster, 40 metro ingurura, ezkerrera doan pista hartuko dugu, Mendiola aldera.

1 km

Eskuinera doan bihurgunea hartu ondoren, Mendiola herrira sartuko gara. Zuzen jarraituko dugu, eliza gure ezkerrean utzita.



Mendiolako Andra Mariaren Jasokundearen parrokia elizak, funtsean XVI. mendekoa denak, erretaula barrokoa eta izar itxurako ganga bitxia dauzka.

1,1 km

Kalearen amaieran horma bat aurkituko duzu. Ezkerrera bira egin eta berehala eskuinera. Herriko kale nagusia hartuko duzu. Jarraitu zuzen.

1,3 km

Iturri bat duen parketik pasatutakoan, gure ezkerrera bidea banatzen dela ikusiko dugu. Ezkerretik igotzen den bidea hartuko dugu.

1,6 km

Aldapa amaitu baino lehen, gure ezkerrean pista zabal bat eta hesi berezi bat utzi eta berehala, ezkerrera bide zabal bat irtetzen da, eta bertatik joango gara. GR-25ean (Lautadako bira mendien magaletik) gaude eta marka gorri eta zuriek lagunduko digute ibilbidearen zati honetan.

2,3 km	 Kontuz! Errepide tarte batean zaude. Bidetik zati bat jaitsi ondoren, errepide batera iritsiko gara. Eskuinera jo eta laster iritsiko gara Monasteriogurenera. Herria zeharkatuko dugu.
3,1 km	Monasterioguren herriko iturrira iritsiko gara. Ezkerrera bira egin, hesi bat pasatu eta pista batetik jarraituko dugu. GR-25 ibilbidetik jarraituko dugu.
3,5 km	Ezkerreko bidea hartuko dugu. Zuzen segituta, etxe batera iristen da.
3,6 km	Bidea banatu egiten da. Eskuinetik jarraituko dugu.
5,1 km	Bidegurutzeta. Eskuinetik joan eta erreka txiki bat gurutzatuko dugu egurrezko pasabidetik.
5,3 km	Langa bat gurutzatu eta zuzen jarraituko dugu. Metro gutxi batzuk aurrerago, Uribarri Nagusira doan pista bat ikusiko duzu ezkerrean. Bide hori baztertu eta jarraitu zuzen.



KUTZEMENDIKO AZTARNATEGI ARKEOLOGIKOA

Gasteiztik hurbil dago, Gasteizko Mendien oinean, eta ez da asko urruntzen gure ibilbidetik.

Egindako prospekzioetan hainbat barruti eta material deskubritu dira, besteak beste, **harri leunduzko aizkorak eta silaxezko tresnak**, baita metalarekin lan egiten zela adierazten duten hondar batzuk ere. Nekazaritza, ehunen fabrikazioa eta beste industria batzuk ere menperatzen zituztela jakin da. Aurkitutako aztarnen arabera, baiezta genezake herria bizirik egon zela hainbat mendez, Kristo aurreko III. edo II. mendera arte.

HARRIAREN BIDEA



Ibilbide honen zati bat harriaren bide zaharretik doa, **Axarte Gasteizekin** lotzen zuen bidetik, hortik ekarri baitziren Andra Mariaren katedrala eraikitzeko harkaitzak. Duela bost urte, **Santa Maria Katedrala fundazioak** katedralaren interes historiko eta artistikoa agerian uzten duen ibilbide bat jarri zuen martxan, gertuko paisaiaren elementuak, inguruko geografia, eta, bereziki, historian zehar Gasteizera harria ekartzeko erabili diren bide historikoak nabarmenduz.



5,9 km	Bidea banatzen da. Ezkerretik jarraituko dugu.
6,1 km	Etxe baten parean pista nagusia utzi eta, GR delakoaren markak jarraituz, ezkerretik irteten den bide batetik gora hasiko gara.
6,3 km	Hesia gurutzatuko dugu.
6,7 km	Bidegurutztea. Eskuinera bira egin eta GR-25 utziko dugu.
8,2 km	Aldapa gogorra. Amaitzean, eskuinera joko du. Igoerak jarraitzen du.
8,5 km	Ezkerrean jarraituko dugu pistatik, zuzen doan bidezidorra baztertuz.



GR-282: ARTZAINZA NATURBIDEA

Ibilbide honetan interes natural, kultural eta historikoa pizten duten hainbat bide eta zidor daude. Artzaintza naturbide liluragarria (GR-282) ibilbidearen zati handi batean izango dugu lagun. Ibilbide honetan gure aitzindarien kultura eta ingurumenarekiko bizikidetzaz ezagutu ahalko ditugu. **Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Burgostik pasatzen da; hala ere, bere bidearen ia erdia Arabako lurretan barrena doa** (210 kilometro 484tik). Ibilbide zirkular handi honek parke naturalak (Aizkorri-Aratz, Urkiola, Gorbeia, Valderejo, Izki, Urbasa, Aralar) eta hegazti, hezegune eta bazter berezi eta bikainen babes bereziko eremuak komunikatzen ditu.



9,9 km	Mendilerroaren gainaldera iritsiko gara. Esquinera bira egingo dugu artzaintza naturbidetik (GR-282).
10,2 km	Pagoganen gailurrera iritsiko gara (1.020 metro). Aprobetxatu ikuspegi eder hauek atsedean apur bat hartzeko. GR-282tik jarraituko dugu.
10,8 km	Inguru honetako baso magikoetako bat zeharkatuko dugu.
13 km	<p>Bidea banatzen da. Eskuinetik jarraituko dugu. Une batez GR-282tik irtengo gara. Ibilbide horretan bertan, aurrerago, tarte tekniko bat aurkituko dugu eta bertatik jaitsiko gara metro batzuetan. Bidea lokatzez beteta badago, kontuz ibili!</p> <p> Adi! Zailtasun txikiagoarekin ibili nahi izanez gero, GR-282ko marka gorri eta zuriak jarrai ditzakegu, eta 500 metro inguru aurrerago elkartuko gara berriz gure ibilbidearekin.</p>
13,2 km	Esquinera joko du, zuhaixken arteko bidezidor txiki batetik.
13,3 km	Hesia gurutzatuko dugu. Esquinera bira egin eta GR-282 hartuko dugu.



INTERES BEREZIKO FLORA

Gasteizko Mendiak, Arabako bazter berezi eta bikainen katalogoan sartzen direnak, beren **ahultasun edo mehatxuagatik** interes berezikoak diren flora espezie ugariaren babesleku dira, eta agerian uzten dute Gasteizko kokaleku honek duen ahalmen botanikoa. Irudian *Carlina acaulis* bat ikus dezakegu, espezie arraro gisa katalogatua. Mehatxu handienak: apainketarako erabilera, abeltzaintza bertan behera uztea eta zuhaitz landaketak. Eguzki lore izenez ezagutzen den landare hau etxe euskaldun askoren sarreretan erabili izan da, espiritu txarren aurkako babesle gisa.

14 km

Zapaltzen ari garen pista utzi eta apur bat eskuinera joko dugu, basoan sartzen den bidezidorrean barrena. Puntu honetan PR-A20ko (Betoñu haitzeko basabidea) marka zuri eta horiak dauzkagu, GR-282ko marka zuri eta gorriekin bat eginez. Bertatik jarraituko dugu gure ibilbidearekin.

14,3 km

Langa bat gurutzatu eta, metro gutxitan, Gasteiz hiriaren muga markatzen duten mugarrietako bat ikusiko dugu.



Olarizuko jaiegunean, iraileko Ama Birjinaren osteko lehenengo astelehenean, Gasteizko korporazioak udalerria ixten duten mugarriak ikuskatzen ditu. Tradizio historiko honi buruzko daturik zaharrenen artean XVI. mendearen amaierako agiri bat dago, baina Olarizuko erromeriarekin batera egitea XIX. mendeko kontua da.


14,5 km

Zailtasun tekniko handiagoa duen leku batean sartuko gara.

14,8 km	Bidegurutzea. Esquinera bira egingo dugu, pista zabal batetik. Metro gutxi batzuk aurrerago, ezkerrera bira egingo dugu eta jaisten jarraituko dugu. GR-282tik irten eta, hemendik aurrera, PRko marka zuri eta horiak jarraituko ditugu.
15,8 km	Pista utzi eta ezkerrean dagoen bidezidorra hartuko dugu, marka zuri eta horiak jarraituz.
16,7 km	Pista batera iritsi eta esquinera joko dugu.
17,7 km	Kolore hori sendoa duen pista batera iritsi eta ezkerrera joko dugu.
17,9 km	Pista horia utzi eta, 200 metro igarotzean, gure ezkerrera ezin hobeto markatuta dagoen bidezidorra hartuko dugu, PR-A20ko marka zuri eta horiak jarraituz.
18 km	Ezkerrera bira egingo dugu. Zubia gurutzatu eta zuzen jarraituko dugu bidezidorretik.
20 km	Asfaltatutako pista batera iritsiko gara. Esquinera joko dugu.
21,1 km	Mendiolara iritsi baino lehen gure ibilbideko 1,6 puntu kilometrikora helduko gara, eta gero, etorritako bidetik itzuliko gara (GR-25eko markak jarraituz).
21,6 km	(1,1 kilometroaren parekoa) Ezkerrera bira egingo dugu, eta berehala, esquinera jo; "Sahasti" kaletik igoz, elizaren ondotik pasatu eta aurrera jarraituko dugu.
22,7 km	Ibilbidearen amaiera.



IBILBIDEAREN PROFILA



LEKU INTERESGARRIAK

**NATURA ETA PAISAIA**

1. Olarizuko parkea
2. Olarizuko ortuak
3. Askartzako hariztiak
4. Gasteizko Mendiak

Inguruan:

- Errekaleor ibaia
- Salburuko hezegunea

**KULTURA**

1. Olarizu: Kutzemendiko kastroa
2. Olarizu: Olarizuko etxaldea
3. Mendiola: Jasokundeko Andra Mariaren eliza
4. Monasterioguren: Santiago Apostoluaren eliza
5. Arkaia: terma erromatarrek
6. Otazu: Vasco-Navarro trenbideko geltoki zaharra
7. Gasteiz: hirigune historikoa

**AISIALDIRAKO GUNEAK**

1. Olarizuko parkeko aisialdirako gunea
2. Otazuko aisialdirako gunea

MAPA



FITXA TEKNIKOA

Nola heldu:	Gasteiztik, Olarizuko parkean barrena, Olarizuko etxaldetik
Distantzia, guztira:	22,7 kilometro
Iraupena, gutxi gorabehera:	2,5 ordu
Zailtasuna:	Handia
Gomendatutako bizikleta:	BTTa
Desnibel metatua:	615 metro

EZ GERATU IKUSI GABE...



OLARIZUKO GURUTZERAKO IGOERA

Gure abialekutik metro gutxira, Olarizuko gurutzerara igotzen den bidea hasten da. Handik, **Arabako hiriburuen ikuspegi pribilegiatuaz** gozatu ahalko duzu. XIX. mendetik irailera Ama Birjinaren ondorengo astelehenean **erromeria herrikoia** ospatzen da Olarizuko landetan, eta **700 metro inguru** dituen muino hau koroatzen duen gurutzerara igotzen da. Landa horietan Arabako hiriburua inguratzen duen ibilbide berde honen ingurumen prestakuntzarako eta informaziorako guneetako bat dago: Ingurumen Gaietarako Ikastegia, egoitza **Olarizuko Etxaldean** duena.